


ZIRKOTEKA



UMEENTZAKO ZIRKU TAILERRAK

**“Haurren sorkuntza eta gaitasun artistikoak piztu nahi ditugu,
jolasaren bitartez, zirkuaren mundura hurbilketa eginez”**





Eskolaz kanpoko tailerrak

Haurrentzako pentsatutako tailerrak eskaintzen ditugu, zirkuko diziplina desberdinetan murgilduko direlarik.

Kurtsoan zehar zirku-diziplina desberdinak lantzen dira, besteak beste:

- **Eskujokoak:** zapiak, pilotak, diabloak, mazoak, txinatar platerak...
- **Orekak:** zankoak, pedaletak...
- **Akrobaziak:** banakakoak zein taldekoak.
- **Airekoak:** aireko mugimenduen hastapenak.



Helburu orokorrak



Adimena, gorputza eta sorkuntza piztea! Arte, kirol eta elkarbizitzan sartzeko bidea.

Tailerrean hainbat teknika desberdin landuko dira, hala nola, aireko akrobazkiak, orekak eta eskujokoak, adiskidetasuna, talde-lana eta norbere buruarekiko konfidantza garatuz.

Zirkoaren bitartez, umeei norbere gorputzaren gaineko ezagutza lantzen dute: indarra, elastikotasuna eta oreka, beste askoren artean, zirko tekniken praktikari esker, baina batez ere, jolasaren bitartez.

Zirkozaurreko tailerrak ez dira irakasleak zuzendutako ohiko ikastaroak, haurrak segurtasun baldintzetan eta **aske adierazteko espazio bat** baizik.



Diziplinak



ESKUJOKOAK



Koordinazioa, kontzentrazioa eta mugimen xehea landuko dira, jolas eta elementu desberdinen gaineko habilitate eta praktikaren bitartez. Hasteko, esku jokoen azalpen orokor bat ematen da, bat, bi edo hiru zapiekin, ondoren pilotekin, mazoekin edota beste elementuekin saiatzeko. Diabolo eta plater txinatarren oinarrizko joku edo mugimenduak ere ikasiko dira.

OREKA



Elementu baten gainean oreka lantzea da helburua, haurrak bere gorputzaren oreka erdiguneaz ohartzea bultzatuz. Horretarako, zankoekin, pedaletekin, oreka-bolarekin, erruloarekin... primeran pasatuko dute.

AKROBAZIAK



Alde batetik bertikalak, eta bestetik bakarkakoak. Taldeko edo bertikal akrobaziak, diziplina soziomotriz bezala definitu dezakegu, non beti kide bat edo gehiago elkartzen diren haien ariketa motrizak sinkronizatzen, giza-figura edo piramideak sortzeko. Elkarlanean garatzen den diziplina bat da, tipologia desberdinetan sakonduz, izan ere, gorputzak bi funtzio desberdin bete beharko ditu, alde batetik "Euskarria" edo basea, kidea hartu eta eusten duena; eta bestetik "Arina", euskarriaren gainean flexibilitate eta oreka ariketak egiten dituenak.

AIREKOAK



Honen helburua, oinarrizko koordinazio motereen ikasketa da, adibidez, eskuen edo oinen gainean jartzea, hauen konbinaketa, erritmo eta postura egokiak... gero elementuen bitartez airean ere gorputzaren erabileran sakontzeko. Gure helburu nagusia jarduera honetan, gorputzaren ezaguntza sakona bilatzea da, bere mugimendu aukera desberdinak esploratuz eta norberarengan eta kideengan konfidantza sustatuz.



TALDEAK ETA BEGIRALEAK

Talde berean adin tarte handirik ez egotea gomendagarria da. sasun neurriak direla eta, 2-4 adineko taldea kendu behar izan dugu gure eskaintzatik. Momentu honetan hurrengo taldeekin lan egiten dugu*:

- 4 eta 7 urte bitartean.
- 8 eta 11 urte bitartean.

15 ikasleko begirale bat jartzen dugu. Taldea handiagoa balitz, Zirkozaurrek baloratuko luke bigarren monitore bat sartu behar den ala ez, eta horrek ekarriko lukeen kostu erantsia.

*Malgutasuna egon daiteke taldeen adinetan.

INSTALAZIOAK ETA MATERIALAK

Tailerra aurrera eramateko garrantzitsua da espazio diafanoa eta koltxonetak dituen, Zirkozaurrek material espezifikoa eramango du. Airekoak eskatuz gero, ezinbestekoa izango da gure teknikarietako baten bisita, ainguraketa-puntu segururik dagoen egiaztatzeko.

HIZKUNTZA

Tailerra gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez eman daiteke (eskuragarri ditugun monitoreen arabera).

Kontuan hartzeko

PREZIOAK

Tailerraren kostuak aldaketak jaso ditzake baldintza desberdinen arabera, hala nola, egutegia, monitore kopurua edo landuko diren diziplinak.

Jarri gurekin harremanetan mediacion@zirkozaurre.com helbidearen bitartez, eta beharizanei egokitutako aurrekontu zehatza eskatzeko.

Zirkozaurre, Bilboko zirku-arten espazioa

Zirkozaurre Zorrozaurreko Erriberan, Bilbon, kokatutako zirku-arten espazioa da. **Sorkuntzarako, formakuntzarako eta erakusketarako zentroa** gara. Zirku konpainia bat daukagu eta zirku garaikideko ikuskizunak antolatzen ditugu. Gure instalazioetan beste artistak hartzen ditugu egitza artistikoen bidez.

Diziplina askotako ikastaro erregularrak jasotzen dituen zirku eskola bat dugu. Eta udaletxeentzat, ikastetxeentzat, enpresentzat eta partikularrentzat tailer egokituak egiten ditugu. Esperientzia zabala dugu eta irakasle onenak, denak giro honetan profesionalki jarduten dutenak.

Zirkozaurren 8 urte baino gehiago daramatzagu helburu nagusi bat duten proiektuak garatzen: **Euskadin zirkuaren sektorea profesionalizatzea.**



Eskolaz kanpoko tailerrei
buruz gehiago jakin nahi
duzu?



Galdetu!

ZIRKOZAURRE

Deustuibarra, 70B
Antigua Fábrica de Artiach en Zorrozaurre
48014 Bilbo (Bizkaia)

www.zirkozaurre.com
mediacion@zirkozaurre.com
946 521 038 / 665 595 781